- Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

**2019KO OTSAILAREN 21EKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK
EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

**ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION ORDINARIA
CELEBRADA EL DÍA 21 DE FEBRERO DE 2019**

- Urnietako Udalaren diru laguntzak arautzeko Ordenantza.

- Ordenanza reguladora de la concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Urnieta.

3. artikulua. Eskatzaileak

Artículo 3. Solicitantes

Diru-laguntzen onuraduntzat hartuko da diru-laguntza hori emateko arrazoia den jarduera egin behar duen irabazi asmorik gabeko elkarte edo fundazioa.

Tendrá la consideración de beneficiaria de subvenciones las asociaciones y fundaciones sin ánimo de lucro que haya de realizar la actividad que fundamentó su otorgamiento.

Onuradun izateko, azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorraren 13. artikuluan xedatutako baldintzak bete beharko dira.

Para obtener la condición de beneficiario/a se deberán cumplir los requisitos establecidos en el artículo 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

4.artikulua. Finantziazioa.

Artículo 4. Financiación.

Diru-laguntzen deialdi honetara bideratutako kopurua 8.000 eurokoa da, eta finantzaketa 1 0600 481 230.20.06.2019 (559) zenbakidun aurrekontu partidaren kargu egingo da.

La cantidad destinada a la ejecución de la presente convocatoria de subvenciones se eleva a 8.000 euros, y la financiación se efectuará con cargo a la partida presupuestaria n.º 1 0600 481 230.20.06.2019 (559).

5. artikulua. Eskakerak.

Artículo 5. Solicitudes.

Eskakerak BERTAN bulegoan nahiz Udalaren webgunearen bidez (www.urnieta.eus) egingo dira.

Las solicitudes se realizarán en la instancia oficial que se facilitará en la oficina BERTAN así como a través de la web municipal (www.urnieta.eus).

Erakunde bakoitzeko eskaera bakarria aurkeztu ahal izango da.

Sólo se podrá presentar una única solicitud por entidad.

Eskari orria eta gainerako inprimakiak osorik bete behar dira.

La instancia y los demás impresos deberán cumplimentarse en su totalidad.

Eskajerari erantsi beharreko dokumentazioa:

La documentación que debe acompañar a la solicitud :

a) Eskaera orria.

a) Instancia.

b) Goian aipaturiko inprimakiez gain, diru-laguntza lehenengoz eskatzen duten elkarteek beste hauek ere aurkeztu beharko dituzte:

b) Además de la instancia, las entidades que soliciten subvención por primera vez, deberán presentar:

- Eusko Jaurlaritzako edo Estatuko Administrazioaren Elkarte edo Fundazioen erregistroan eroldaturik daudela ziurtatzen duen agiria.
- Erakundearen estatutuak.
- Elkartearen curriculum: orain arte burututako jarduerak, helburuak, giza eta material baliabideak, etab...
- Arduradun(ar)en NANaren fotokopia.

- Certificado de inscripción en el registro de asociaciones o fundaciones del Gobierno Vasco o de la Administración del Estado.
- Estatutos de la entidad.
- Curriculum de la entidad: actividades desarrolladas hasta la fecha, objetivos, medios personales y materiales, etc.
- Fotocopia del DNI de la/s persona/s responsable/s.



2019KO OTSAILAREN 21EKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 21 DE FEBRERO DE 2019

- Identifikazio Fiskalerako Kodearen
fotokopia.

- Fotocopia del código de identificación
fiscal.

d) Aurreko urteetan diru-laguntza eskaria egin baina beren egoeran aldaketaren bat izan duten entitateek aldaketa jaso duen dokumentazioa berriz aurkeztu beharko dute

d) Las entidades que han presentado la solicitud en años anteriores, pero han sufrido algún cambio en su situación, deberán entregar de nuevo la documentación que recoge el cambio.

Urnietako Udalak beharrezkotzat jotzen duen beste edozein agiri eskatzeko aukera izango du.

El Ayuntamiento de Urnieta tendrá la posibilidad de solicitar cualquier otro documento que estime necesario.

Interesdunek lehendik Udalean aurkeztuak dituzten agiriak aurkeztu beharrik ez dute izango.

Los/as interesados/as no tendrán que presentar aquellos documentos que hubiesen presentado con anterioridad en el Ayuntamiento.

Eskaerak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratzen denetik 30 eguneko epean aurkeztu beharko dira.

Las solicitudes se deberán presentar en el plazo de 30 días desde la publicación del anuncio en el Boletín oficial de Gipuzkoa.

Baldin eta ikusten bada eskaerak oinarrietan adierazitako betebeharrak ez baditu betetzen, interesdunari eskatuko zaio 10 eguneko epean hutsa zuzendu dezan edo dagozkion agiriak aurkeztu ditzan. Hala egingo ez balu, bere eskaerari uko egin diola ulertuko da, dagokion organoak aurrez ebazpena emanda.

Si la solicitud no reúne los requisitos señalados en las bases, se requerirá al/la interesado/a para que, en un plazo de 10 días, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos. Si no lo hace, se le tendrá por desistido/a de su petición, previa resolución dictada por el órgano correspondiente.

6. artikulua. Eskatzailearen betebeharrak.

Artículo 6. Obligaciones de la entidad solicitante.

Diru-laguntza ematen bazaio onuradunak honako betebeharrak hauek izango ditu:

Si se le concede la subvención, deberá cumplir las siguientes obligaciones:

a) Helburua betetzea eta aurkeztutako jardueren programa gauzatzea.

a) Cumplir el objetivo y ejecutar el programa de actividades presentado.

b) Jarduera gauzatu duela eta diru-laguntza eskuratzeko baldintzak eta bete beharrak bete dituela egiaztatzea.

b) Acreditar la ejecución de la actividad y el cumplimiento de las condiciones y obligaciones para la obtención de la subvención.

c) Diruz lagundutako jarduera gauzatzeko beharrezko baimenak eskuratzeko eta haietan agindutakoa betetzea

c) Obtener los permisos necesarios para la ejecución de la actividad subvencionada y cumplir con lo establecido en ellos.

d) Diru-laguntza eman duen organoak egin beharreko egiaztatze-lanak onartzea eta laguntza eskaintzea, eta era berean kontrol organoek egin beharreko beste egiaztatze eta finantzen kontrolerako jardueretan ere laguntzea; aipatu jarduerak egiteko eskatutako informazio guztia emango da.

d) Someterse a las actuaciones de comprobación a efectuar por el órgano concedente, así como cualesquiera otras de comprobación y control financiero que puedan realizar los órganos de control competentes, tanto nacionales como comunitarios, aportando cuanta información le sea requerida en el ejercicio de las actuaciones anteriores.

**2019KO OTSAILAREN 21EKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK
EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

**ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION ORDINARIA
CELEBRADA EL DÍA 21 DE FEBRERO DE 2019**

e) Diru-laguntza onartzen duen ebazpen-proposamena egin aurretik honako hauek egiaztatzea:

- Zerga obligazioak eta gizarte segurantza ordainduak dituela.

- Urnietako Udalaren zergak ordainduak dituela.

- Urnietako Udaleko sozietate publikoei ordaindu beharrekoa ordaindua duela.

f) Kontabilitate liburuak, eginbideko erregistroak eta gainerako agiriak edukitzea, kasu bakoitzean onuradunari aplikatu beharreko merkataritza eta sektore legeriak exijitu bezala ikuskatuak, bai eta diru-laguntzak arautzeko oinarriek exijitzen dituzten kontabilitate egoerak eta erregistro bereziak ere, egiaztatu eta kontrolatzeko ahalmenak behar bezala erabiltzen direla bermatze aldera.

g) Jasotako diru-laguntzaren erabilera egiaztatuko duten agiri guztiak lau urtean gorde behar dira, baita dokumentu elektronikoak ere, egiaztatze eta kontrol jardueretarako erabili daitezkeelako.

h) Lagundutako jarduerak finantzatzeko beste diru-laguntza, sarrera edo bitarteko batzuk izanez gero, diru-laguntza eman duen organoari horren berri ematea. Bestelako finantzabide horien berri izan eta berehala jakinarazi beharko zaio hori diru-laguntza eman duen organoari, eta betiere jasotako funtsak zertan erabili diren justifikatu aurretik. Edozein kasutan, diru-laguntza eta sarrera guztiak batuta jasotako kopurua ez da inoiz izango gastuen %100 baino gehiagokoa.

i) Diru-laguntza emateko kontuan hartutako edozein alderdi aldatuz gero, horren berri ematea.

j) Diruz lagundutako jarduera zabaltzeko ekintzetan garbi adieraziko da Urnietako Udalak diru-laguntza eman duela.

k) Jarraian agertzen direnetatik egoeraren bat gertatuz gero, jasotako funtsak itzultzea:

e) Hallarse, con anterioridad a dictarse la propuesta de resolución de concesión:

- Al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social.

- Al corriente de las obligaciones tributarias con el Ayuntamiento de Urnieta.

- Al corriente de pago con las Sociedades Públicas del Ayuntamiento de Urnieta.

f) Disponer de los libros contables, registros diligenciados y demás documentos debidamente auditados en los términos exigidos por la legislación mercantil y sectorial aplicable al beneficiario en cada caso, así como cuantos estados contables y registros específicos sean exigidos por las bases reguladoras de las subvenciones, con la finalidad de garantizar el adecuado ejercicio de las facultades de comprobación y control.

g) La documentación justificativa de la subvención recibida deberá ser conservada durante un período mínimo de cuatro años, incluidos los documentos electrónicos, en tanto puedan ser objeto de las actuaciones de comprobación y control.

h) Comunicar al órgano concedente la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien las actividades subvencionadas. Esta comunicación deberá efectuarse tan pronto como se conozca y, en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación dada a los fondos percibidos. En cualquier caso, la suma de todos los ingresos, incluidas las subvenciones recibidas no podrá superar el 100% de los gastos.

i) Comunicar al órgano concedente la modificación de cualquier circunstancia que hubiese sido tenida en cuenta para la concesión de la subvención

j) En las actuaciones de difusión de la actividad subvencionada deberá indicarse claramente que el Ayuntamiento de Urnieta ha otorgado la subvención.

k) Proceder al reintegro de los fondos percibidos en los siguientes supuestos:

**2019KO OTSAILAREN 21EKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK
EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

**ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION ORDINARIA
CELEBRADA EL DÍA 21 DE FEBRERO DE 2019**

- Diru-laguntza lortzea horretarako eskatutako baldintzak faltsutuz edo diru-laguntza ukatzeko arrazoi izango liratekeen kausak ezkutatuz.
- Diru-laguntza emateko arrazoi izan den helburua, jarduera edo proiektua ez betetzea, inondik ere edo neurri batean.
- Diru-laguntza zertan erabili den justifikatzeko betebeharra urratzea edo behar bezala ez justifikatzea.
- Diru-laguntza ematean onuradunei jarritako baldintzak ez betetzea.
- Artikulu honen d atalean agertzen diren egiaztatze jardunak eta finantza kontrolak eragozteko edo ukatzea.
- Obtención de la subvención falseando las condiciones requeridas para ello u ocultando aquéllas que lo hubieran impedido.
- Incumplimiento del objetivo, de la actividad o del proyecto, en su totalidad o en una parte, para el que la subvención fue concedida.
- Incumplimiento de la obligación de justificación o justificación insuficiente del destino de la subvención percibida.
- Incumplimiento de las condiciones impuestas a las personas beneficiarias con motivo de la concesión de la subvención.
- Obstrucción o negativa a las actuaciones de comprobación y control financiero previstas en el apartado d) del presente artículo.

l) Urnietako udaleko eta udalerriko euskararen erabilera arautzen duen Ordenantzako 16. artikuluko 1. eta 4. puntuetan dioena betetzea: edozein komunikabideetan egingo den informazioa eta publizitatea (idatziak, iragarkiak, oharra, bozgorailu bidezko mezuak eta gainerako komunikazioak) euskara hutsez edo ele bietan egin beharko da. Nahi izanez gero, Udalaren Euskara Sailaren itzulpen eta aholkularitza zerbitzuaren laguntza izango da beharrezko zuzenketak egiteko. Haurreria eta gazteriarri zuzendutako egitasmoek euskararen erabilera ziurtatu beharko dute.

l) Cumplir con lo establecido en los puntos 1 y 4 del artículo 16 de la Ordenanza que regula el uso del euskera en el Ayuntamiento y en el municipio de Urnieta: cualquier información o publicidad que se realice en medios de comunicación (escritos, anuncios, notas, mensajes por megafonía y demás comunicaciones) deberá ofrecerse en euskera o en euskera y castellano. El Ayuntamiento ofrecerá los servicios de traducción y asesoramiento de su servicio de euskera para hacerlas correcciones necesarias. Los programas dirigidos al público infantil y juvenil deberán garantizar el uso del euskera.

m) Jarduera gauzatzean pertsonaren oinarrizko eskubideak eta indarrean dagoen legeria errespetatu beharko dira; jarduerak kontutan izango dituzte bazterketa jasan dezaketen pertsonen behar espezifikoak eta bermatuko dute ez dela bazterketarik egingo jaiotza, nazionalitatea, sexu, erlijio, iritzi edo beste edozein ezaugarri edo gorabehera pertsonal edo sozialengatik.

m) Observar el debido respeto a los derechos fundamentales de la persona y a la legalidad vigente en el ejercicio de la actividad; las actividades deberán tener en cuenta las necesidades específicas de las personas que puedan sufrir exclusión y garantizarán que no haya discriminación alguna por razón de nacimiento, raza, sexo, religión, opinión o cualquier otra condición o circunstancia personal o social.

n) Diruz lagundutako jarduerak sortutako komunikazio guztiak hizkuntza inklusiboan egitea, eta emakumeen eta gizonezkoen irudiak estereotiporik gabekoak eta kopuruz ere parekoak izatea.

n) Realizar toda la comunicación generada por la actividad subvencionada en un lenguaje inclusivo y garantizar la presencia equilibrada y no estereotipada de mujeres y hombres en las imágenes que se utilicen.

o) Diruz lagundutako jarduera eta programei buruzko informazioa herritarrengana iristeko neurriak hartzea: prentsa, kartelak....

o) Adoptar las medidas de difusión de la actividad y de los programas subvencionados: prensa, carteles...

**2019KO OTSAILAREN 21EKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK
EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

**ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION ORDINARIA
CELEBRADA EL DÍA 21 DE FEBRERO DE 2019**

7 artikulua. Eskerak izapidetzea eta baloratzea.

Aurkeztutako eskabideak baloratuko dituen organo kolegiatua, Urnietako Udaleko Gizartekintza saileko teknikariak, Udaleko Idazkariak eta Kontu-hartzaileak osatuko dute.

Erakunde edo elkarte bakoitzari emango zaion diru-laguntza kopurua ezartzeko helburuarekin, alderdi hauek izango dira kontuan:

- Udaleko aurrekontuan helburu horretarako aurreikusitako zenbatekoa.

Gehenez hiru erakunde diruz lagunduko dira eta hautaketa egiteko balorazio irizpideak hartuko dira kontuan.

Jarraian adierazten diren irizpideak kontuan izanik puntuaketa handiena duten hiru elkartei, proportzionalki aurrekontuan ezarritako diruaren arabera emango zaie dirulaguntza.

Eskatutako dirulaguntza proportzionalki hiruren artean banatutakoa baino txikiagoa bada, eskatutako kantitatea soilik emango zaio eta gainerakoa hautatutako beste bi edo bestearen artean banatuko da.

3 erakunde hauen artean deialdi honetara bideratutako diru kopurua agortuko ez balitz, laguntza puntuaketa handiena izan duen hurrengo erakundeari emango zaio, beti ere artikulua honetan zehazten diren baldintzen arabera.

Lehenengo lau erakundeen artean deialdi honetara bideratutako kopuru guztia agortuko ez balitz, puntuazio ordenaren arabera, bosgarren erakundeari eta hurrengoei bideratuko zaie, deialdi honetako diru-kopurua agortu arte.

Bestalde, benetako gastua aurkeztutako aurrekontua baino baxuagoa baldin bada, edo jarduera egiten ez bada, aldea itzuli egin beharko

Artículo 7. Tramitación y valoración de las solicitudes.

El órgano colegiado que valorará las solicitudes presentadas estará formado por la técnico del Área de Acción Social, el Secretario y la Interventora del Ayuntamiento.

Con el fin de establecer la cantidad de subvención que a cada organismo o asociación se le vaya a otorgar, se tendrán en cuenta los siguientes aspectos:

- Cantidad prevista para ese fin en el presupuesto del Ayuntamiento.

El número de organismos que se subvencionará será un máximo de tres y para su selección se tendrán en cuenta los criterios de valoración.

Teniendo en cuenta los criterios de valoración, los tres que mayor puntuación hayan obtenido, se les concederá proporcionalmente la cantidad establecida en el presupuesto.

Si la ayuda solicitada es inferior a la cantidad repartida proporcionalmente entre las tres, solamente se le otorgará la cantidad solicitada, y la restante se repartirá entre las otras u otra entidad.

Si se da la circunstancia de que entre estas 3 entidades no se agota la cantidad destinada a la ejecución de la presente convocatoria, se otorgará la ayuda a la siguiente entidad que mayor puntuación haya obtenido, según criterios marcados en el presente artículo.

Si entre las cuatro primeras entidades no se agotase la totalidad de la cantidad destinada a esta convocatoria se procederá del mismo con la quinta entidad por orden de puntuación y sucesivas hasta el agotamiento de la cantidad destinada a la presente convocatoria.

Por otra parte, si el gasto real es inferior al presupuesto presentado o si no se realiza la actividad, deberá de devolver la diferencia.

**2019KO OTSAILAREN 21EKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK
EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

**ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION ORDINARIA
CELEBRADA EL DÍA 21 DE FEBRERO DE 2019**

Garatu beharreko jarduera edo programen balorazio irizpideak honako hauek izango dira:

- Elkartearen jarduera zenbateraino egokitzen den Gizarte Ekintzako Departamentuaren bai ekintza lerroetara eta bai erantzundako premia sozialetara: 20 puntutaraino.
- Elkartearen jarduera xedetzat duen esparruan eta konkretuki, Urnietan duen eragina 2018 urtean, onuradunak, kopuru, ezaugarriak (personas, familias, langile boluntarioak): 30 puntutaraino.
- Entitateak bere jardueraren garapenerako egiten duen berezko baliabiden (giza baliabideak eta baliabide materialak) eta langile boluntarioen ekarpen handiagoa: 10 puntutaraino.
- Beren erakunde propioen barruan, gizon-emakumeen arteko berdintasun politiketan erakunde onuradunen ibilbidea: 5 puntutaraino.
- Jarduera espezifikoarekin loturiko gastu eta diru-sarreraren aurrekontua. Beste finantziario-iturri batzuen presentzia (berezkoa edo kanpokoa): 5 punturaino

Los criterios de valoración de la actividad y/o programas a desarrollar serán los siguientes:

- Ajuste de la actividad a las líneas de actuación y a las necesidades sociales atendidas por el Departamento de Acción social: Hasta 20 puntos.
- Impacto, personas beneficiarias, número y características (personas, familias, voluntarios/as) y resultados esperados de la acción en el ámbito al que se dirige y en particular, en la población de Urnietá en el año 2018: Hasta 30 puntos.
- Mayor aportación de recursos propios de la entidad (humanos y materiales) en especial de personal voluntariado para el desarrollo de la actividad: Hasta 10 puntos.
- Trayectoria de las entidades beneficiarias en políticas de igualdad de mujeres y hombres dentro de sus propias organizaciones: Hasta 5 puntos.
- Presupuesto de gastos e ingresos relacionado con la actividad específica. Presencia de otras fuentes de financiación (propias o externas): Hasta 5 puntos.

Gutxienez eska daitekeen puntuazioa:

Edozein kasutan, programa honetan aurreikusitako laguntza lortzeko, aurkeztutako proiektuek gutxienez 24 puntuko puntuazioa lortu beharko dute.

Ez dira baloratuko 20 orrialde baino luzera handiagoko lanak, ezta deialdi honen balorazioaren egiturarekin bat ez datozenak

8 artikulua. Ebazpena.

1. Eskerak jasotzeko epea amaitu eta hiru hilabeteren barruan, organo kolegiatuak aurkeztutako eskaerak aztertu eta txostenak prestatuko ditu.

Puntuación mínima exigible:

En todo caso, para la obtención de las ayudas previstas en el presente programa, los proyectos presentados deberán obtener una puntuación mínima de 24 puntos.

No se valoraran aquellos proyectos que se presenten con una extensión superior a 20 páginas ni se ajusten a la estructura de valoración de la presente convocatoria.

Artículo 8. Resolución.

1. A partir del día siguiente del fin del plazo para la presentación de instancias y en el plazo de tres meses, el órgano colegiado correspondiente,

**2019KO OTSAILAREN 21EKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK
EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

**ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION ORDINARIA
CELEBRADA EL DÍA 21 DE FEBRERO DE 2019**

analizará las solicitudes presentadas y presentará los informes correspondientes.

2. Organo kolegiatuak proposatutakoa ikusirik, organo eskudunak aurkeztutako txostenen arabera ebaluatuko ditu eskaerak, lehenetsunak eta diru-laguntzen zenbatekoak ezarriko ditu, eta ebazpena emango du gehienez 6 hilabeteetako epean..

2. A la vista de la propuesta del órgano colegiado, el órgano competente evaluará las instancias en función de los informes presentados, establecerá las preferencias y los importes de las subvenciones, y resolverá el procedimiento en el plazo máximo de 6 meses.

3. Erabakia jakinarazi gabe epe hau amaituko balitz, isiltasun administratiboagatik diru-laguntzaren eskaera onartu gabe geratu dela ulertuko da.

3. Una vez transcurrido dicho plazo sin haberse notificado la resolución, se entenderá que la solicitud de concesión de la subvención ha sido desestimada por silencio administrativo.

4. Ebazpenak administrazio-bidea amaituko du, eta bere aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri daiteke dagokion Administrazioarekiko Auzietako Epaitegiaren aurrean, bi hilabete epean. Nolanahi ere, nahi izanez gero, adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurretik, berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, hilabete epean.

4. La resolución pondrá fin a la vía administrativa, contra la cual podrá interponerse directamente recurso contencioso-administrativo ante el correspondiente Juzgado de lo Contencioso-Administrativo en el plazo de dos meses. No obstante, previa a la presentación del citado recurso contencioso administrativo, podrá interponerse en el plazo de un mes un recurso de reposición ante el órgano que dictó la resolución.

9. artikulua. Jakinarazpena.

Artículo 9. Notificación de la resolución.

Ebazpena Udaletxeko WEB orrian eta iragarki taulan jarriko da eta diru-laguntza eskatu duten pertsona guztiei ere jakinaraziko zaie.

Las resoluciones adoptadas se publicarán en la página WEB y el tablón de anuncios del Ayuntamiento además de serles notificadas a las personas solicitantes.

10. artikulua. Diru-laguntzen ordainketa.

.Artículo 10. Abono de las subvenciones.

a) Diru-laguntzak bi epetan ordainduko dira. Erabakiaren jakinarazpenarekin batera, diru-laguntzaren %75 ordainduko zaio onuradunari.

a) Las subvenciones se harán efectivas en dos plazos. Junto con la notificación del acuerdo a la entidad interesada se abonará el 75% de la subvención concedida.

b) Gainerako %25a diru-laguntza eskatu deneko programaren memoria jaso ondoren ordainduko da, betiere datorren urteko urtarrilak 31 baino lehenago aurkeztu bada. Memoria hau entregatuko ez balitz, diru-laguntzaren onuradunak ordura arte jasotako dirua itzuli egin beharko du.

b) El 25% restante se hará efectivo tras la entrega, antes del 31 de enero del año siguiente, de la memoria de la actividad o programa para la cual se ha solicitado la subvención. En el caso de que esta memoria no sea entregada, deberá devolver el dinero recibido hasta el momento.

Diruz lagundu daitezkeen gastutzat joko dira deialdi honetako oinarri espezifikoetan zehazten direnak eta artikulua honetan aurreikusitakoarekiko lehenetsunezko aplikazioa duten preskripzioak dituztenak.

Se consideran gastos subvencionables los definidos en las respectivas bases específicas de la presente convocatoria, cuyas prescripciones son de aplicación preferente a lo previsto en el presente artículo.

2019KO OTSAILAREN 21EKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 21 DE FEBRERO DE 2019

Oro har, diruz lagundu daitezkeen gastuak dira entitate eskatzaileak aurkeztzen duen jardueraren aurrekontu banakatu eta xehatua jasota daudenak eta jarduera horrekin zalantzarik gabeko lotura dutenak.

Diruz lagundu daitezkeen gastuak gastu zuzenetan eta zeharkako gastuetan banatzen dira.

Gastu zuzenak dira, aurrez deskribatutako baldintzak aintzat hartuta, diruz lagundu daitezkeen programa edo jarduera gauzatzearekin zuzenean lotutako kostu espezifiko gisa identifika daitezkeenak eta, beraz, bertan zuzenean erantsi daitezkeenak.

Oinarri espezifikoek bestelakorik ezarri ezean, diruz lagundu daitezkeen zeharkako gastu gisa onartu ahal izango da programaren edo jardueraren aurrekontuaren % 10 gainditzen ez duen kopurua, betiere entitate onuradunaren administrazio kostu orokorren zati bat, modu justifikatua, diruz lagundutako programari edo jarduerari esleitzeko aukera dagoenean eta programa edo jarduera egokiro prestatzeko eta burutzeko ezinbestekoak direnean.

Salbuespen kasuetan, onuradunak behar bezala justifikatutako proposamena aurkeztu ondoren, diru-laguntzak eranskinetan azaltzen den beste modu batera ordaintzea edo memoria entregatzeko epea luzatzea erabaki ahal izango du Udaltzatza.

11. artikulua. Justifikazio modua.

Diru-laguntza jasotzen dituztenek behar bezala egiaztatu beharko dute eskuratutako dirua laguntzaren xede diren eginkizunetarako erabili dutela.

Jarduerak justifikatzeko dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- Egindako jarduerari buruzko azalpen memoria eta lortutako emaitzen ebaluazioa.
- Emandako diru-laguntzaren zenbatekoari dagozkion gastuen legeko fakturen kopiak eta horien zerrenda honako datuak azalduta: fakturaren

Con carácter general son gastos subvencionables los que figurando recogidos en el presupuesto desglosado y detallado de la actividad que presente la entidad solicitante estén vinculados de manera indubitada al desarrollo de la misma.

Los gastos subvencionables se dividen en gastos directos y gastos indirectos.

Los gastos directos son los que teniendo en cuenta las condiciones anteriormente descritas sean identificables como costes específicos ligados directamente a la ejecución del programa o actividad subvencionable y que por tanto pueden ser cargados al mismo directamente.

Se podrá admitir, salvo que las bases específicas establezcan otra cosa, como gasto indirecto subvencionable una cantidad que no podrá rebasar el 10% del presupuesto del programa o actividad siempre y cuando parte de los costes administrativos generales de la entidad beneficiaria pueda ser atribuida, de forma justificada, al programa o actividad subvencionada y sean indispensables para la adecuada preparación y ejecución de la misma.

En casos excepcionales, tras recibir la propuesta debidamente justificada por parte la entidad solicitante, el Pleno Municipal podrá decidir realizar el abono en otro modo incluido en los anexos o prorrogar el plazo de entrega de la memoria.

Artículo 11. Justificación de la actividad.

Los beneficiarios de la subvención estarán obligados a justificar que los fondos percibidos han sido destinados a la finalidad que sirvió de fundamento a la concesión.

Para la justificación de la subvención recibida, deberá presentarse la siguiente documentación:

- Memoria explicativa de las actividades realizadas y evaluación de los resultados obtenidos.
- Copias de las facturas legales de los gastos correspondientes al importe de la subvención concedida y la relación de dichas facturas incluyendo los siguientes

**2019KO OTSAILAREN 21EKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK
EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

**ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION ORDINARIA
CELEBRADA EL DÍA 21 DE FEBRERO DE 2019**

zenbakia eta data, zergatia, zenbateko garbia eta BEZ, hornitzailearen izena eta IFK.

datos: número y fecha de la factura, motivo, importe neto e IVA, nombre del proveedor y CIF.

- Diru-laguntzaren xede den jarduerari lotuta argitaratutako dokumentu grafiko eta idatzien ale bana: kartelak, prentsa oharrak edo artikuluak, programak, argitalpenak...
- Un ejemplar de cada documento gráfico o escrito publicado en relación a la actividad objeto de la subvención: carteles, notas o artículos de prensa, programas, publicaciones



**2019KO OTSAILAREN 21EKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK
EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

**ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION ORDINARIA
CELEBRADA EL DÍA 21 DE FEBRERO DE 2019**

Anexo II / II. Eranskina

**URNIETAKO UDALA ETA BEHEMENDI DONOSTIALDEA BIDASOAKO LANDA
GARAPENERAKO ELKARTEAREN ARTEKO AKORDIOA**

Urnietako Udala, 2019ko otsailak 28an

ELKARTU DIRA

ALDE BATETIK, Mikel Pagola Tolosa, Urnietako Udaleko Alkate-Lehendakaria.

BESTE ALDETIK: Mikel Zendoia Laskarai, Jauna, Behemendi Donostialdea-Bidasoako Landa Garapenerako Elkartearen Gerentea.

ADIERAZTEN DUTE

Urnietako udalak eta Behemendik Andoain, Hernani eta Urnietako Udalekin batera, landa eremuko biztanleen gizarte beharren inguruko diagnostikoaren ondorioetan oinarrituta, garraio eta isolamendu arazoei aurre egiteko, Bidez-Bide garraio zerbitzuarekin jarraitu nahi dutela. Honetarako, bien arteko lankidetzaz lutzatzeko asmoa adieraziz.

AKORDIOAK

Urnietako Udalak eta Behemendi Elkarteak Bidez Bide Zerbitzua, aurreko urteetako baldintza berberetan, ematen jarraitzeko urtebeteko luzapena adostu dute.

Zerbitzuaren finantzazioari dagokionez, 2019. urterako Urnietako Udalak 4.946,11 euroko ekarpena egingo dio Behemendiri, aurrekontuko partida honetatik: 1 0600.227.231.60.00 (2405)

Horrela jasota gera dadin, eta ados daudela adierazteko, honako akordioa hau sinatzen dute, adierazitako lekuan eta datan.

Urnietako Udaleko Alkate-Lehendakaria
MIKEL PAGOLA TOLOSA

Behemendiko Gerentea
MIKEL ZENDOIA LASKARAI



2019KO OTSAILAREN 21EKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 21 DE FEBRERO DE 2019

Anexo III / III eranskina

URNIETAKO UDALERRIAN KULTURA, EUSKARA, HEZKUNTZA, KIROL, HAURRERIA, GAZTERIA ETA AISIALDIKO JARDUERAK FINANTZATZEKO DIRULAGUNTZAK ARAUTZEN DITUEN OINARRI ARAUTZAILEAK.

BASES REGULADORAS DE LAS SUBVENCIONES PARA LA FINANCIACIÓN DE ACTIVIDADES DE CULTURA, EUSKERA, EDUCACIÓN, DEPORTE, INFANCIA Y JUVENTUD, OCIO.

Urnietako Udalak, gizarte kohesiorako eta herritarren parte-hartzerako asoziazionismoa sustatzeko politikari jarriki eta urnietarrek beren historia estimatu, beren ohiturez gozatu, ingurunea errespetatu, ezagutzak eta kultura handitu eta konpromiso solidarioak hartu ahal ditzaten, Gizarte Sustapen eta Garapen Pertsonal saileko aurrekontuan dirulaguntzak emateko aukera eskaintzen du elkarteek, pertsona fisikoek eta irabazi asmorik gabeko bestelako entitate pribatuek burutzen dituzten jarduera anitzak bultzatzeko eta, hala, Urnietako herritarren bizimodua hobetzen laguntzeko.

El ayuntamiento de Urnieta, conforme a su política de fomento del asociacionismo como medio de cohesión social y participación ciudadana y con el objetivo de que las y los urnietarras puedan apreciar su historia, disfrutar de sus costumbres, respetar su entorno, incrementar sus conocimientos y cultura y se puedan comprometer solidariamente, contempla en el presupuesto del Departamento Promoción Social y Desarrollo Personal la concesión de subvenciones destinadas a colaborar en los proyectos que asociaciones, personas físicas y otras entidades privadas sin ánimo de lucro desarrollan, contribuyendo así a mejorar la vida de la ciudadanía urnietarra.

Hainbat helburu partekatu nahi ditugu Urnietako gizarte eragileekin, hala nola kirola eta musika sustatzea, giza eskubideak errespetatzea, emakumeen eta gizonen bizitza mugatzen dituzten rol eta estereotipoak gainditzea, sektore zaurgarrienei arreta eskaintzea, belaunaldien eta kulturen arteko bizikidetzak sustatzea, norberaren historiaren berri izatea, emakume eta gizonen arteko elkarbizitza osasuntsua bermatzea, boluntarioritza bultzatzea eta euskararen ezagutza eta erabilera indartzea.

Aspectos tales como la promoción del deporte y la música, el respeto a los derechos humanos, la convivencia saludable entre mujeres y hombres, la atención a los sectores más vulnerables, la convivencia intergeneracional e intercultural, el conocimiento de la propia historia, fortalecer el conocimiento y el uso del euskera, superar los roles y estereotipos de género y promover el voluntariado, son los objetivos que queremos compartir con los diferentes agentes sociales de Urnieta.

Oinarri arautzaile honek dokumentu bakarrean hainbat dirulaguntza lerro biltzen ditu, laguntza ekonomikoen entitate hartzaileei erreferentzia bakarra eskuratzeko eta, halaber, espedienteak bideratzeak dakartzan gestio administratiboak errazteko. Honako dirulaguntza lerro jaso dira beste hainbeste eranskinetan:

Las presentes bases reguladoras reúnen en un único documento líneas de subvención distintas, con el fin de procurar a las entidades destinatarias de las ayudas económicas una única referencia, al tiempo que se facilitan las gestiones administrativas que conlleva la tramitación de los expedientes. Se contemplan recogidas en otros tantos anexos, las siguientes líneas de subvención distintas:

I eranskina: Kultura, haurreria eta gazteria, kirol, Gazte Festa eta Sanmiel Jailetako jarduerak.

Anexo I: Actividades culturales, de infancia y juventud, deportivas, fiesta de la Juventud y de San Miguel.

II eranskina: Musika grabazioak

Anexo II: Grabaciones musicales

III eranskina: Eliteko kirolariak

Anexo III: Deportistas de élite.

IV eranskina: Aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroak euskaraz.

Anexo IV: Cursos de monitor/a o director/a de tiempo libre en euskara.

V eranskina: Euskaltegiko Matrikulak

Anexo V: Matriculas de Euskaltegi.

2019KO OTSAILAREN 21EKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 21 DE FEBRERO DE 2019

VI eranskina: Euskaltegiko eta HHI helduen heziketa iraunkorretako bidaiak.

Anexo VI: Desplazamiento para los/as alumnos/as de Euskaltegis y de educación permanente de adultos EPA.

1. artikulua. Xedea.

Deialdi honek kultura, euskara, hezkuntza, kirola, musika, festak eta aisiarekin lotutako herritarren ekimenak bultzatzea xede duten dirulaguntzak ematea arautzen du, beti ere 2019ko ekitaldian burutzen direnak (bestelako datak ezartzen dituzten eranskinen kasuan izan ezik eta goian aipatutako helburuak lortzen laguntzen dutenak.

Artículo 1. Objeto.

La presente convocatoria regula la concesión de subvenciones que tienen por objeto colaborar con las iniciativas ciudadanas relacionadas con la cultura, el euskera, la educación, el deporte, la música, las fiestas y el tiempo libre que se desarrollen en el ejercicio 2019 (excepto para aquellos anexos que estipulen un periodo diferente) y que contribuyan a alcanzar los objetivos arriba mencionados.

2. artikulua. Aplikatu beharreko Araudia

Dirulaguntza hauek ematea eta instantzia emailearen (Udala) eta erakunde onuradunaren (onuradunak) arteko harremana oinarri hauek arautuko dute. Oinarri hauetan aurreikusi gabeko guztiari dagokionez, ondorengoek xedatutakoa jarraituko da:

Artículo 2. Normativa aplicable

La concesión de estas subvenciones y la relación jurídica entre la instancia otorgante (el Ayuntamiento) y la entidad beneficiaria (los/as beneficiarios/as) se regirá por las presentes bases. En todo lo no previsto en las mismas se estará a lo dispuesto en:

- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Laguntzen Lege Orokorra eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege-Dekretuak hura garatzeko onartutako Arautegia.
- Euskarari dagokionean, 1997ko martxoaren 19an Urnietako Udalak onartutako Urnietako Udalean eta udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko arauak ematen dituen Ordenantzan xedatutakoa bete beharko dute.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea eta emakume eta gizonen arteko benetako Berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa.
- Urriaren 1eko 30/2015 Legea, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.

- La Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y su Reglamento de desarrollo aprobado por el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio.
- En lo que respecta al euskera, deberán cumplir lo dispuesto en la Ordenanza municipal sobre normas para la normalización del uso del Euskera en el Ayuntamiento y municipio de Urnieta, aprobada a fecha 19 de marzo de 1997.
- Ley 4/2005, de 18 de febrero para la Igualdad de Mujeres y Hombres y la Ley Orgánica 3 /2007, de 22 de marzo, para la Igualdad efectiva de mujeres y hombres.
- Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

3. artikulua. Eskatzaileak

Diru-laguntzen onuraduntzat hartuko da dirulaguntza hori emateko arrazoia den jarduera egin behar duen irabazi asmorik gabeko pertsona

Artículo 3. Personas solicitantes

Tendrá la consideración de beneficiaria de subvenciones la persona física o jurídica sin

2019KO OTSAILAREN 21EKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 21 DE FEBRERO DE 2019

fisiko edo juridikoa, edo dirulaguntza jaso izana legitimatzen duen egoeran dagoena.

Onuradun izateko, azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorraren 13. artikuluan

xedatutako baldintzak bete beharko dira.

4. artikulua. Eskerak

Eskerak BERTAN bulegoan eta LEKAIOKo harrera gunean eskuragarri egongo den eskari orri ofizialean nahiz Udalaren webgunearen bidez (www.urnieta.eus) egingo dira.

Eskari orria eta gainerako inprimakiak osorik bete behar dira.

Eskarari erantsi beharreko dokumentazioa eranskinetan zehaztuko da. Urnieta Udalak beharrezkotzat jotzen duen beste edozein agiri eskatzeko aukera izango du.

Interesdunek lehendik Udalean aurkeztuak dituzten agiriak aurkeztu beharrik ez dute izango.

Eskatzaileak ale bat gordeko du beretzat eta erregistroak beste bat Sustapen Arloa bideratzeko.

Eskerak **apirilaren 16a baino lehenago** aurkeztu beharko dira.

II, IV, V eta VI eranskinetarako eskerak aurkezteko epeak eranskinetan zehazten dira.

Baldin eta ikusten bada eskerak oinarrietan adierazitako betebeharrak ez baditu betetzen, interesdunari eskatuko zaio 10 eguneko epean hutsa zuzendu dezan edo dagozkion agiriak aurkeztu ditzan. Hala egingo ez balu, bere eskarari uko egin diola ulertuko da, dagokion organoak aurrez ebazpena emanda.

5. artikulua. Eskatzailearen betebeharrak.

Dirulaguntza ematen bazaio onuradunak honako betebeharrak izango ditu, oinarri berezietan jasotzen direnez gainera:

ánimo de lucro que haya de realizar la actividad que fundamentó su otorgamiento o que se encuentre en la situación que legitima la concesión de la subvención.

Para obtener la condición de beneficiario/a se deberán cumplir los requisitos establecidos en el artículo 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

Artículo 4. Solicitudes

Las solicitudes se realizarán en la instancia oficial que se facilitará en la oficina BERTAN y en la recepción de LEKAIO así como a través de la web municipal (www.urnieta.eus).

La instancia y los demás impresos deberán cumplimentarse en su totalidad.

La documentación que debe acompañar a la solicitud se especificará en los anexos. El Ayuntamiento de Urnieta tendrá la posibilidad de solicitar cualquier otro documento que estime necesario.

Los/as interesados/as no tendrán que presentar aquellos documentos que hubiesen presentado con anterioridad en el Ayuntamiento.

Un ejemplar quedará en poder de la persona solicitante y otro en el propio Registro de Entrada que se encargará de trasladarlo al área Promoción.

Las solicitudes deberán presentarse **antes del 16 de abril**.

Los plazos de entrega de las solicitudes para los anexos II, IV, V y VI se especifican en los anexos.

Si la solicitud no reúne los requisitos señalados en las bases, se requerirá al/la interesado/a para que, en un plazo de 10 días, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos. Si no lo hace, se le tendrá por desistido/a de su petición, previa resolución dictada por el órgano correspondiente.

Artículo 5. Obligaciones de la persona solicitante.

Si se le concede la subvención, la persona beneficiaria deberá cumplir las siguientes

**2019KO OTSAILAREN 21EKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK
EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

**ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION ORDINARIA
CELEBRADA EL DÍA 21 DE FEBRERO DE 2019**

- a) Helburua betetzea eta aurkeztutako jardueren programa gauzatzea.
- b) Jarduera gauzatu duela eta dirulaguntza eskuratzeko baldintzak eta bete beharrak bete dituela egiaztatzea.
- c) Diruz lagundutako jarduera gauzatzeko beharrezko baimenak eskuratzeko eta haietan agindutakoa betetzea.
- d) Dirulaguntza eman duen organoak egin beharreko egiaztatze-lanak onartzea eta laguntza eskaintzea, eta era berean kontrol organoek egin beharreko beste egiaztatze eta finantzen kontrolerako jardueretan ere laguntzea; aipatu jarduerak egiteko eskatutako informazio guztia emango da.
- e) Dirulaguntza onartzen duen ebazpen-proposamena egin aurretik honako hauek egiaztatzea:
- Zerga obligazioak eta gizarte segurantzaren ordainduak dituela.
 - Urnietako Udalaren zergak ordainduak dituela.
 - Urnietako Udaleko sozietate publikoei ordaindu beharrekoa ordaindua duela.
- f) Kontabilitate liburuak, eginbideko erregistroak eta gainerako agiriak edukitzea, kasu bakoitzean onuradunari aplikatu beharreko merkataritza eta sektore legeriak exijitu bezala ikuskatuak, bai eta dirulaguntzak arautzeko oinarriek exijitzen dituzten kontabilitate egoerak eta erregistro bereziak ere, egiaztatu eta kontrolatzeko ahalmenak behar bezala erabiltzen direla bermatze aldera.
- g) Jasotako dirulaguntzaren erabilera egiaztatuko duten agiri guztiak lau urtean gorde behar dira, baita dokumentu elektronikoak ere, egiaztatze eta kontrol jardueretarako erabili daitezkeelako.
- h) Lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, sarrera edo bitarteko batzuk izanez gero, dirulaguntza eman duen organoari horren berri ematea. Bestelako finantzabide horien berri izan eta berehala jakinarazi beharko zaio hori dirulaguntza eman duen organoari, eta betiere jasotako funtsak zertan erabili diren
- obligaciones, además de aquellas recogidas en las bases específicas:
- a) Cumplir el objetivo y ejecutar el programa de actividades presentado.
- b) Acreditar la ejecución de la actividad y el cumplimiento de las condiciones y obligaciones para la obtención de la subvención.
